

Javier Valverde ◊ Margolaria

Paisaiak izan ditu inspirazio iturri Javier Valverde donostiarrak gaztetatik; eta azken bi urtean egindako margolan koloretsuak ikusgai jarri ditu Ekain arte galerian.

«Aspertua nengoen teknika berdina erabiltzeaz»

Estitxu Zabala

Ekain galerian lehen aldiz jarri ditu bere lanak erakusgai Javier Valverdek (Donostia, 1956). Paisaia orokorrak olioan egiten ari-tu da maiz, baina, oraingoan, olio gutxi egin ditu eta pastel koloretsuek hartu dute lekua. Hala, azken bi urtean osatu dituen margolanak ekarri ditu bere Oiarztzungo etxetik Donostiara. Gainera, koadroekin batera, eskultura moduko kaxa eta apain-garri txiki batzuk ere osatu ditu, erakusketa gehiago alaitzeko. Artistarekin bildu da IRUTXULO-KO HITZA.

Zer egin duzu Ekaineko erakusketa- rako?

Azken bi urtean egindako lanak dira. Alde handia dute orain arte egindakoarekin. Normalean, olioak egiten nituen, eta oraingoan, pastelak dira gehienak. Aspertua nengoen teknika berdina erabiltzeaz, eta aldatzea erabaki nuen. Badago aurretik egindako lanen bat, hiruzpalau urte ditue-na, baina gehienak erakusketa honetarako prestatutakoak dira. Kaxak eta koadroak kontutan hartuta, 32 lan inguru dira.

Zer da koadroetan ikus daitekeena?

Lehen paisaiak orokorrean egiten nituen. Orain, dena egin beharrean, gauza zehatzagoak egin ditut, txokoak. Ez naiz ongi konturatu-zen zer egiten dudana, horrela atera zaizkit horrela behar dutelako.

Buruan dituzun paisaiak dira?

Beti pentsatu behar duzu ikusten dituzun gauza guztiak buruan geratzen direla. Batzuk ateratzen dira, eta beste batzuk ez. Buruan biltegi moduko bat osatzen dut paisaiekin, eta batzuetan atera egiten dira.

Koadro batzuk bi zatitan osatu dituzula ikus daiteke.

Beti izan dut gogoko planoak eta bolumena ere lantzea. Oraingo honetan bitan bakarrik erabili dut, beti ere marrazkietan.

Eskultura moduko batzuk ere osatu dituzu.

Bueno ez dira eskulturak, nik kaxak deitzen diet; jolasteko eta ongi pasatzeko egiten ditut. Oso ongi pasatzen dut egiten ditudanean: ez ditut serio lantzen.

«Orain, dena egin beharrean, gauza zehatzagoak egin ditut, txokoak»

«Ez dira eskulturak, nik kaxak deitzen diet; jolasteko eta ongi pasatzeko egiten ditut»

«Leku askotan aho zabalik geratzen naiz, eta horregatik dut paisaiekiko zaletasuna»

Nola definituko zenuke erakusketa?

Koloreak agintzen du. Alai izan daiteke, bakoitzaren ikuspegiaren arabera, baina tristea behintzat ez dela argi dago.



E. ZABALA

Paisaiak aspalditik margotzeko ohitura duzu, ezta?

Leku askotan aho zabalik geratzen naiz, eta horregatik dut paisaiekiko zaletasuna.

Aita margolaria zenuen, eta arreba ere aritu da. Zu gazte hasi zinen margotzen, ezta?

Hogei bat urterekin hasi nintzen margotzen; orduan ez nuen esperorjarraituko nuenik. Etxean hasi nintzen margotzen, eta pixkana pixkanaka jarraitu dut, gaur arte.

◊ ezabala@hitza.info

↓ Erakusketa

JAVIER VALVERDE

- Zer. Javier Valverde margolari donostiarraren erakusketa.
- Non. Parte Zaharreko Ekain Arte Lanak galerian; Iñigo kalea, 4.
- Noiz arte. abuztuak 31.
- Ordutegia. Asteartetik larunbatera, 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 21:00etara.
- Sarrera. Doakoa.



Margolan koloretsuek osatzen dute galeriako erakusketa. E. ZABALA



Kultura eta aisia euskaraz Donostian

antzerkia

•Zu Ere On Kixote?

Uztailak 27, 19:30
Latsari plaza (Loiola)
Agerre Teatro + Imuntzo Eta Beloki Trikitilariak
Herritarren partaidetza eta eragin-trukeko antzerki esperientzia

bertsoa

•Bertsolariak

Uztailak 26, 22:00
Zubietako plazan
Beñat Gaztelumendi, Agin Rezola, Iker Zubeldia, Julio Soto
Zubietako herri jaiek

•Berto bazkaria

Uztailak 28, igandea
14:00
Loiolako festetan
Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi

musika

•LAUROBA live!

Uztailak 26, Ostirala
20:00
Egiako Le Bukowski tabernan

•Beñat Achiary

Uztailak 26, 23:55
San Telmo Museoa (Skoda Gunea)
Jazzaldia 10€

•Berri Txarrak, Betagarri, ...

Uztailak 30, 00:00
Zubietako plaza
Zubietako herri jaiek

beste

•SERT-en Anatomia

Uztailak 27, 18:00
San Telmo Museoa
Bisita Gidatua, 3 €
Izena emateko: 943-481569
santelmo@donostia.org

•SERT-en Anatomia

Uztailak 30, 18:00
San Telmo Museoa
Bisita Gidatua, 3 €
Izena emateko: 943-481569
santelmo@donostia.org

haur antzerkia

•Gezurtiak

Uztailak 30, 18:00
Trapu Zaharra
Antzerki kalean
Easo plaza
Adina: +4

haur aisialdia

•Maritxu nora zoaz, eder galant hori?

(Jantzi tailerra)
Uztailak 26, 18:00
Urguleko Historiaren etxea
Motako Gaztelua
Adina: 5-12 urte

•Gaztekoen antzerkia

Uztailak 28, 12:00
Zubietako plaza
Zubietako herri jaiek

•Otsoz otso

Uztailak 29, 18:00
Urguleko haur liburutegia
Damen Bateria
Adina: +5

•Birziklatutako txotxongiloak

Uztailak 30, 18:00
Urguleko Natur txokoa
Gobernadorearen batera
Adina: +5

•Txio-txioka

Uztailak 31, 18:00
Urguleko Natur txokoa
Gobernadorearen batera
Adina: +5

